



abeltzaintza ekologikoa

Zer da abeltzaintza ekologikoa?

Abeltzaintza ekologikoa azienda gobernatzeko sistema bat da eta kalitatezko elikagaiak lortzea du xede giza elikadurarako, betiere baliabideak zentzuz erabiliz, ingurumena errespetatuz, eta animalien ongizate-maila handia bermatuz.


Abeltzaintza-eredu hau lurraldeari lotua dago eta bere helburuetako bat da tokiko baliabideak aprobetxatzeko nahiz birziklatzeko eta mendiak garbitzeko funtzio ekologikoa berreskuratzea; ahal den heinean, animalien elikaduraren zikloa eta hondakinen kudeaketa etxaldean bertan itxiz.

Animalien osasuna prebentzioan oinarriturik maneiatzen da.

Bere araudia du, beste abeltzaintza eredu batzuetatik bereizteko: Europar Batasuneko (EB) 2018/848 Erregelamendua, hain zuzen ere.

Helburuak

- Animalien ongizatea errespetatzea.
- Biodibersitatea eta baliabideen erabilera jasangarria bultzatzea, sistemaren beraren barnean zikloak sustatuz.
- Ingurumenaren eta klimaren gaineko inpaktu kaltegarria ahalik eta gehien gutxitzea eta, ahal den neurrian, nekazaritza-lanek eragin ditzaketen kutsadura mota guztiak saihestea.
- Kalitatezko elikagai osasungarriak lortzea, behar adina
- Abeltzainari bizi-maila egokia ematea.
- Animalia-jatorriko elikagaietan ez erabiltzea sintesiko substantzia kimikorik, ezta antibiotikoen edo bestelako sendagaien hondakinik ere.



Printzipio orokorrak

- > Animalien elikadura ekologikoa da, bazkan eta larrean oinarritua. Pentsu-kontsumoa mugatua dago.
- > Animalien osasunaren tratamendua nagusiki prebentiboa da. Honatx oinarriak: tokiko arrazen aukeraketa, abeltzaintza kudeaketarako praktikak, goi kalitateko pentsuak, ariketa, populazio-dentsitate egokiak, eta espezie bakoitzaren adinera eta behar fisiologikoetara egokitutako ostatua, baldintza higieniko onetan.
- > Animaliak solteak daude, unean uneko salbuespenak salbuespen.
- > Sintesi kimikoko sendagai alopaticoen eta antibiotikoen erabilera mugatu eta kontrolatzen da.
- > Abereen bizitza osoan, abeltzaintza-jarduerak bideratuak daude abereen sufrimendua, mina eta larritasuna eragoztera edota ahalik eta gehien murriztera.

Debekatua dago

- > Elikadura behartua ematea edo substantziak erabiltzea hazkuntza edo ekoizpena sustatzeko.
- > GEOak (genetikoki eraldatutako organismoak) edo produktu eratorriak erabiltzea.
- > Animaliak lurrik gabe haztea. Kaiolak edo antzekoak erabiltzea.
- > Animalia-espezie bereko abereak molde ekologikoan eta konbentzionaletan aldi berean haztea, ekoizpen-unitate berean.
- > Sintesi kimikoko albaitaritzaren sendagai alopaticoak prebentzio-tratamendu gisa erabiltzea (antibiotikoak barne) edo ugalketa kontrolatzeko tratamendu hormonalak erabiltzea.
- > Praktika mingarriak errutinaz egitea, hala nola hortzak eta mokoa moztea edo adarrak kentzea.

abeltzaintza
ekologikoa

CPAEN
NNPEK
EKOLOGIKOA

